

# Gesto por la Paz

---

## PRENTSAURREKOA

Askatasunaren aldeko eta jazarpen indarkeriaren aurkako ekitaldirako  
deialdia Gasteizen

*Si te amenazan, nos agreden  
Elkarrekin askatasunaren alde.*

Azaroaren 16an Tolerantziaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Zoritxarrez, hemen eta orain, ezinbestekoa da hori eskatzea eta exijitzea, ETAk gizarte osoa eta, zehazki gure ordezkariak mehatzatzen jarraitzen duelako. Banda terroristak bere burua gure bizitzan eta gure borondatearen jabe ezartzen du eta, oraintsu iragarri duen bezala, armak eskuetan erasoko die bere asmoetara makurtzen ez direnei. Zaharrak berri: beldurtu, jazarri, askatasuna geldiarazi eta, zoritxarrez, baita asasinatu ere. Gure ordezkari politikoek, gure epaileek, poliziek, enpresariak, irakasleak, kazetariak, e.a. urte asko daramate etengabeko mehatxu terroristaren pean. Guztiz onartezina da. Baina, errealitate hauek gain, Bakearen aldeko Koordinakundeak jazarpen indarkeriaren ondorengo alderdi hauek ere nabarmendu nahi ditu.

- **Lehenengo eta behin, ETaren erasoak gizarte osoaren aurkako delak konturatu behar dugu**

Gogoetarako deia egin nahi dugu. Normalizat jo ote dezake gizarte batek gure milaka auzokidek, ordezkariak, adiskideak, ikaskideak jasaten duen egoera dramatikoak? Beraiek, guzti horiek, gure sistema demokratikoko zati dira eta, batez ere, gure gizarteak, gure elkarteak, **geu** dira. Ezin dugu beste aldera begiratu auzokideari arma apuntatzen diotenean, egoera horretaz arduratu behar dugu, ETAk edozein herritar mehatxatzen duenean, berau, pertsona guzti horiek, mehatxatzeaz gainera, gure gizartearentzat adierazten duten guztia, gure elkartearen aniztasuna, demokrazia, askatasuna... mehatxatzen du. Balio hauen defentsan, isiltasuna hautsi eta kalera atera behar dugu.

- **Bigarrenaz, gure ustez onartezina da demokraziarentzat ETAk inposatu nahi digun anormaltasuna bizitzea**

Gure erabateko asaldura adierazi nahi dugu jendaurrean, ETAk inposatu nahi digun anormaltasunaren aurrean. Anormaltasun hori, funtsean, giza bizitza balizko helburu politikoak jadesteko bidetzat hartetik dator. Ezin da inola ere justifikatu oraindik ere, gaur egun, gizaki orok bizia eta askatasuna izateko eskubidea daukala eta inork, inondik inora ere, ez duela horiek kentzeko eskubiderik aldarrikatzea. Gure inguruko beste edozein lekutan, nabaria izateagatik, defendatzen aritu beharra pentsaezina den errebindikazio hau hemen ezinbestekoa da defendatzea.

Euskal Herrian, besteak beste, bide demokratikoetatik aukeratutako gure ordezkari politikoek jasaten dute ohiz kanpoko egoera hau. Hemen, milaka kargu demokratiko heriotz-mehatxupearan bizi da. Inolako gizatasunik gabeko egoera jasanezina da hau eta, demokraziari dagokionez, **ONARTEZINA**, sistema demokratikoaren aurka egin daitekeen erasorik bortitzena delako. Zuzenean, heriotz-mehatxua jaurtitzen da eta, batzuetan, exekutatu egiten da, ez gehiago ez gutxiago, ETAk onargarriztat jotzen duen bezala pentsatzen ez duena. Horregatik, geure eginbeharra da, gizarte osoaren eginbeharra, bata ala bestea izan gure aukera politikoa, egoera jasanezin honen aurka jarkitzea eta izuaren diktaduraren aurrean arduraz jokatzeko. Beraz, balio demokratikoen eta Giza Eskubideen, politikaren, elkarrizketaren eta elkar ulertzearen aldeko errebelamendu baketsuaren aldekoak gara.

- **Hirugarrenaz, indarkeria eta politika aurkako errealitateak direla berresten dugu**

---

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

e-mail: [gesto@gesto.org](mailto:gesto@gesto.org) <http://www.gesto.org>

# Gesto por la Paz

---

Bakearen aldeko Koordinakundeak aspalditik defendatzen du indarkeria eta politika kontzeptu erabat aurkako eta kontrajarriak direla. Horregatik, ezin dugu onartu, gure gizarteak ezin du onartu, demokrazian ETAk politikarekin, gure borondatearekin zerikusirik duen ezertan esku hartzerik.

Beste alde batetik, ETAk gizartearen aurka terrorismoa gauzatzea aukeratu du, gizaki horren alde borrokatzen duela dioen bitartean: okerreko eta alferreko bidea, zalantzarik gabe; baina gu guztiok argi ikusi behar dugu ETAk beste gizaki baten aurka arma hartzen duenean, gure bizikidetasunaren euskarri diren oinarriei eraso egiten diela, gu makurrarazi eta ikaratzeko. Horregatik, indarkeriaren aldeko hautua egiten dutenek uko egiten diote politika egiteari, elkarrizketan jarduteari, desberdin pentsatzen dutenekin ulertzeari, akordioetara heltzen saiatzeari, besteen nahiak errespetatzeari... Horrela, beraz, ezin dugu inola ere onartu Ajuria-Eneako edo Euskal Herriko herririk txikieneko gobernuan edo oposizioan politika egiten dutenen aurka edo Abiadura Handiko Trenaren inguruko lanetan, Ertzaintzan, Guardia Zibilean, auzitegian edo edozein komunikabidetan lan egiten duen beste edozein gizon edo emakumeren aurka gauzatzen duten presio jasanezina.

- **Eta, laugarrenez, terrorismoa bukatutzat jotzeko ardura ETarena dela salatzen dugu**

ETari, gauzatzen duen terrorismoa bukatutzat jotzeko erantzule nagusi bezala, behin-betiko desagertzeko eta bakean bizitzen eta askatasuna gauzatzen utz diezagula exijitzen diogu, eskubide horiek geureak direlako eta bera egunero kentzen saiatzen delako. Bakean eta askatasunean bizi behar dugu. Azken urteetan beren bizia bizkartzainekin babestu eta era guztietako segurtasun neurriak hartu behar dituztenek, ETaren inguruan pentsatzen dutena esateagatik beldur direnek edo, besterik gabe, indarkeriaren atzarpakada zuzenean bizi ez arren, gure gizartearen horren ondorio larriak ikusten ditugunok, beldur eta presio hori sentitzen dugunok dugu behar hori. Ezin dugu onartu eta geure eginbarra da horren aurka jarkitzea.

Guzti horregatik, eta gure herrian Tolerantziaren aldeko Nazioarteko Egunari (azaroaren 16a) aparteko adiera eman nahirik, Bakearen aldeko Koordinakundeak dei egiten die herritar guztiei azaroaren 14an, larunbatez, 13:00ean, Andre Maria Zuriaren plazan, 'Postas' kalearen kantoian, ***Si te amenazan, nos agreden. Elkarrekin askatasunaren alde*** goiburupean, ospatuko den jazarpen indarkeriaren aurkako ekitaldian parte har dezaten.

Ekitaldi hau, alde batetik, aspalditik zein oraintsutik, bide demokratiko zilegietatik eratutako erakundeetan parte hartzeagatik edo lanbide jakin bat izateagatik, jazarpen indarkeriaren biktima direnenganako **elkartasuna adierazteko aukera** bihurtu nahi dugu. Eta, bestetik, ekitaldi hau matxinada baketsu izatea nahi dugu, gizarte osoa astintzen duen terrorismoaren aurrean, bere erasoak eta mehatxuak gutariko bakoitzari eta gure elkarte osoari min egiten diotelako eta guztiok beldurrarazi nahi gaituztelako. Ekitaldi honetan **ETari desagertzeko exijitu nahi diogu.**

EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

2009.eko azaroaren 7a

